

Azken aldian pausu asko ematen ari dira Gipuzkoan zabor kudeaketaren inguruan. Gaur egun, 2 ildo nagusi daude; batetik Errausketaren aurkako herri plataformak proposatzen diharduguna, San Markos eta Debagoieneko mankomunitateak babestu dutena eta Europako zuzentarauei jarraituz zaborra gaika biltzeko ahalegina egiten duena (batez ere ia zaborraren erdia osatzen duen materia organikoa). Bestetik mugarik gabeko kontsumismoa eta herritarren kontzientzi eza bultzatzen dituen erraustegia, ondorio sanitario, sozial, ekologiko, eta ekonomiko kaltegarriak sortuko lituzkeena.

Guk defenditzen dugun eredia, atez ateko bilketa, Europan milioika bizilagunen zaborra biltzeko erabiltzen dute, duela hamarkadak ezarri eta azkenaldian zabaltze handia izan duena, Kataluniako sistema kasu. Tipologia ezberdinetako etxebizitzetan arrakastaz ezarri da, bai dorre zein sakabanatutako etxeetan, eta 100.000 biztanletik gorako zenbait hiri handietan ere. Atez ateko bilketa Europako aginduei zorrotz jarraitu eta ekonomikoki merkeagoa den sistema da.

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta dagozkion erakundeek ere sistema honi behar duen babesa ematea eskatzen dugu, batez ere ekonomikoa, sistema bakar bezala organikoa erreusarekin bilduta eta ondoren erraustegiara eramatea bultzatzen duten honetan. Arazoa konpondu ordez, gainera, zaborra gainera datorkie eta azken egunetan ikusi dugunez, Bizkaira eramateko hitzarmena egin behar izan dute. Txingudin egin nahi zuten erraustegia ere epaitegiek baliogabetu dute azken egunetan, ingurumen eragin estudioa egin gabe zutelako. Ez dugu ahaztu behar konpostatzen den zaborraren zati organikoa zabor izateari uzten diola, lehengai bihurtuz. Honek ez du ez zabortegi ezta erraustegiarik behar ere, eta epe motzean ezarri daitekeen sistema da.

Horretarako eta erraustegiari beste behin ere gure ezezko argia emateko, alternatibak badaudelako, manifestazioa antolatu dugu ekainaren 14.ean, larunbata, Donostiako bulebarretik arratsaldeko 18,00tan aterako dena.

Atxikimenduak: LAB ELA ESK CNT CCOO EHNE STEE-EILAS

AHT Gelditu! elkarlana  
Hendaiako Ingurumenaren Aldeko Herritarrak (IAH)  
Eguzki  
Ekologistak Martxan  
Greenpeace  
Haritzalde  
Añorgako Ingurumen Komisioa

Zubietako Herri Batzarra  
Añorgako Gazte Asanblada  
Antiguak Erraustegiari UKO!  
XIRIKA Gazte Kazeta  
Antiguotarrak elkarte  
Donostiako Piratak  
Herria kultur elkarte



**Errausketaren Aurkako Herri Plataformen koordinadora**